

# 52.

zenbakia

2020ko abendua

debaldeko alea

# kotarro



## Gabonak: bada aukera



Eguberri hauek ezagutu ditugun ezohikoenak izango dira. Egoerak hala behartuta, ahaleginak eta bi egin dira jarduerak modu seguruan antolatu ahal izateko. Hala, besteak beste, Olentzerok abenduaren 24an bisita bikoitza egingen du, goizean mendi txangoa Orlegi/San Millan inguruan eta iluntzean Lizarrako karriketan barrena (ikus aldizkari honen kontrazala).

Txikienek abenduaren 26 eta 27ko asteburuan hitzordu bana izanen dituzte: Ainhoa Ruiz ipuin kontalaria larunbatean Aritzalan eta Makedo Tailerra igandean Muetzen, bigarren honetan kartoiekin eraikuntzak eta tramankuluak sortuko dituzte. Biak hala biak eguerdian, lau urtetik aurrerako haurrei zuzenduta. Bietarako alde zuzetik izena eman beharko da

whatsappez 622154523 telefonoan edo euskara. irantzu@gmail.com epostan. Ipuin kontaketa kasuan, saioa laburragoa denez eta edukiera gaituzte balitz, bigarren saio bat egin liteke jarraian (aretoa aireztatze denbora utzita), beraz oso garrantzitsua da izen ematea lehenbailehen ezagutzeko.

Bestalde, bi film emanen dira Los Llanos Kulturagunean euskaraz, lehena abenduaren 28an, "Fabulandiako kronikak" eta bigarrena urtarrilaren 2an, "Bihurri, jauretetik kale gorrira". Azkenik, badira helduentzako bi jardura ere: abenduaren 23an "Zaldibar. Zona zero" liburuaren aurkezpena Sugarra gaztetxean eta 26an Karlismoaren museoan bisita gidatua.

## Garean Agenda: Gabonak

### Abenduak 23

Liburu aurkezpena  
"Zaldibar. Zona zero"  
18:30 Sugarra gaztetxea

### Abenduak 24

Olentzero / Goizean Orlegira  
San Millanera  
Iluntzean karriketan barrena

### Abenduak 26

Ipuin-kontaketa  
4 urtetik aurrera  
12:00 Aritzala (Montalban)  
Aldez aurretik izena eman  
behar 622154523  
Oharra: edukiera gaituzte bada,  
jarraian bigarren pasea antola  
daiteke

### Abenduak 26

Bisita gidatua  
17:30 Karlismoaren museoan

### Abenduak 27

Makedo tailerra  
4 urtetik aurrera  
12:00>14:00 Muetz  
(udaletxea)  
Aldez aurretik izena eman  
behar 622154523

### Abenduak 28

Familia-zinema  
"Fabulandiako kronikak"  
Los Llanos Kulturagunea

### Urtarrilak 2

Familia-zinema  
"Bihurri, jauretetik kale  
gorrira"  
Los Llanos Kulturagunea

# Oteitzan iraganetik orainera

Ba da Oteitzan jubilatuta egonda ere, denbora soberan ez daukan taldetxoak. Duela 5 urte inguru hasi ziren herriko ondarea berreskuratu nahian iraganean erabiltzen ziren eraikuntza txikiak berreskuratzen, txabola eta uharkak bereziki. Haien helburua ez da hauek berriz erabiltzeko moduan jartzea, ondasun kulturala mantendu eta hauen berreskuratze sinbolikoa egitea baizik.



## 24 berreskurapen lan

Oteitzako talde honek bere herriko 16 txabola berreskuratu ditu. Garai batean, artzain zein mahastizaleek egun osoa igarotzen etxetik kanpo, ez zen gaur bezain erraza bideetan batetik bestera ibiltzea. Beraz, udaran freskotasunaren bila eta eguraldi txarra egiten zuenean aterpe bila, txabolak erabiltzen zituzten. Denboraren poderioz txabolak erabiltzeari utzi eta haietako gehienak hondatuta zeuden. Egin duten azken lana, berreskuratu duten txabolarik zaharrena da, 1756. urtekoa hain justu, Bazekodorrea deiturikoa. Bestetik, txabolak ez ezik, 7 uharka ere berreskuratu dituzte. Uharkak lur azpian zeuden ur putzuak babesteko gainazalean zeuden eraikuntza txikiak dira, ura hartu ahal izateko lehio moduko batekin. Lanean zenbiltzaten bitartean, pertsona zein animaliek ura edateko erabiltzen ziren. Azkenik, XVIII. mendeko teileria txukuntzen ere egin dute lan.


Herrian egin diren ikerketa historikoaren arabera, 100 txabola eta uharka inguru daude Oteitzako terminoan. Dokumentu hauetaz baliatu izan dira

eraikuntzen hondakinak aurkitzeko. Baina ez da beraien informazio iturri bakarra izan. Herriko pertsona helduenek ere mantendu dute ahoz aho informazio preziatu hori, haien arbasoek erabiltzen zituzten txabola eta uharken berri emanez. Gainera, inguruetan sarri ibiltzen diren ehiztariek ere hainbat aurkitu eta talde honi helazi diete informazioa.

Azaltzen dutenez, txabolek ez zuten aterik izaten, izan ere, erabilera pertsona guztiei zegoen zuzendua. Izaera komunaleko espazioak ziren, nahiz eta lurralde pribatuetan egon, behar zuen edonork erabiltzeko ziren.

## Harri lehorreko teknika

Berreskurapen lanak egiteko teknikari dagokionez, garai bateko teknika berbera erabiltzen dute, harri lehorreko teknika, alegia. Pixkanaka eta modu osoenean mantentzen ziren txabolengandik ikasiz, beraien kabuz ekin zioten teknika hau erabiltzeari. Harri lehorreko teknikaren bitartez, harriak bata bestearen gainean jartzen dira eta tarteka area erabiltzen da egiturari zurruntasuna emateko, baina



ez da igeltsurik ez beste materialik erabiltzen. Garai bateko teknika erabiltzeaz gain, teknika merkea ere bada, lan bolondresa egiten duen talde honentzako aproposa. Teknika hau Gizateriaren Kultura Ondare Inmaterial kontsideratzen da eta ez dira asko teknika honen bitartez jarduten dutenak.

### Transmisio kulturala

Oteitzako jubilatutako talde honek, eraikuntzak berreskuratzeaz gain, herritarrei herriak duen ondare kulturala transmititzeko lana ere egiten dute. Web orriaren bitartez zabaltzen dituzte edukiak eta egiten duten lanaren aurkezpenak ere burutu izan dituzte. Esaten dutenez, herriko udaletxean egiten ari ziren lana aurkeztu zutenean, gerturatu eta interesa erakutsi zuen jende kopuruagatik arrakastatsua izan zen ekimena. Oteitzako ondasun kulturalaren zati hau umeengana hurbiltzeko ipuina ere egin dute eta lehen aipatutako Bazekodorrea txabola agertzen da ipuinean. Esaten dutenez, gazte jendea berreskurapen lan hauetara animatzeko zailtasunak badaude ere, belaunaldi berrietan jakinmina badago. Pozik daude herriko gazte belaunaldiek ondasun kulturalaren garrantziaz kontziente izan eta hainbat ekimenetan parte hartzen dutelako.

### Toponimia

Ahazturan geratzen ari ziren eraikinak izanik ere, kokatzen diren lekuen izenetako asko mantendu izan dira. Izen horietako asko desitxuratu joan dira denborarekin eta beste batzuk mantendu egin dira. Aipatzen dutenez, deitura askok euskal jatorria dute eta terminoen jatorria azaldu eta zaintzeko lana ere egiten dute. Eraikitzen dituzten txaboletan jatorrizko izenak grabatzen dituzte harrietan.



LIBRERIA-PAPELERIA

**INO**

LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Zapateria Kalea, 3  
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

*Jatetxea*

**Volante**

*Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak*

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

# «Hitz eta Pitz»: haurren gozamenerako eta hizkuntza praktikatzeko

Zumadia eskolako guraso elkartearekin elkarlanean Hitz eta Pitz egitasmoa abiatu du Irantzu euskara zerbitzuak proba-moduan. Lehen Hezkuntzako 3, 4 eta 5. mailako ikasleei eskaini zitzaizen eta azaro amaieran bi taldek ekin zioten elkartzeari, osotara hamar haur.

Google Meet tresna erabilia, ohikoa gaur egun eskoletan, astean behin elkartzen dira talde txikietan euskaraz jolasteko, lau eta sei haur artekoak, eta Dindaiako begirale batek gidatuta. Hasierako errezeloak gaindituta (“berriro pantailaren aurrean?”), badirudi gogotsu ari direla haurrak. Osotara zazpi saio egingo ditu talde bakoitzak, 40 minuto ingurukoak.

Gisa honetako proiektuak hizkuntzaren transmisiorako sortzen ari diren zailtasunei erantzunez sortu dira, bereziki Covid-19 garaiotan. Baina, etorkizunari begira, eta zuzeneko ikuskizun, eskulan-tailer, aurrez aurreko plaza-jolasen osagarri bilakatu daiteke. Horretarako bi abantaila nagusi ditu, bereziki interesgarri horren dispersioa handia duen lurralderako (2.500 biztanle inguru eta 37 herri), telematikoki egin ahal izatea. Pantailak ez du gertutasun fisikoak ematen duen magia hori ordezkatzeko, baina etorkizunean baliagarria izango delakoan gaude.

## Maddi

Egunero bizpahiru jolas egiten ditugu: *Xamarikoren kutxa, hiru lerroan eta erroskillaren jolasa, aurkitu desberdintasunak, Kitto hitz...* eta orain arte gehien gustatu zaizkidanak *Xamarikoren kutxa* da eta *Kitto hitz* dira. *Xamarikoren kutxa*n adibidez, jartzen dute argazki bat objektu batzuekin eta gero beste bat jartzen dute, baina kendu dute baten bat eta asmatu behar duzu zein. Nik gomendatuko nuke oso dibertigarria delako eta gainera euskara ikasten delako.



Que la magia continúe  
Magiak jarrai dezala

Celebremos con responsabilidad para poder abrazarnos pronto.  
Ospa dezagun arduraz, laster besarkatzeko.



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

## Amaia Eraso

### Hitz eta Pitzeko begiralea

Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin sortu zen programa hau, izan ere, konfinamenduak, besteak beste, zenbait ondorio negatibo ekarri ditu alor honetan. Baina, nola jarraitu euskararen erabilera sustatzen eta aisialdiaren kalitatezko eskaintza bermatzen COVID-19 garaietan? Hori izan da seguruenik askok buruan bueltaka izan dugun galdera. Online ikastaroak izan ziren galdera honi erantzuna.

Asko baloratzen dira orain espazio seguruak eta, zalantzarik gabe, gure etxea baino espazio seguruagorik ez da egongo. Gainera, ohikoa da egun batzuetarako etxean geratu behar izatea, eta modu honetan, ez dira saioak galtzen. Baina, nola apurtu online elkartzak sortzen dituen barrerak? Zumadia eskolan abiatu berri diren 2 talde eramaten ditut, asteen behin elkartzen naiz talde bakoitzarekin, baina beste eskola batzuetako beste ikasle batzuk ere gidatzen ditut eta gehiago daramatzagu proiektu honekin.

Lehenik eta behin, esan behar dut oso ondo funtzionatzen ari dela formatu hau. Egiten ditugun dinamikak anitzak dira. Izan ere, ez da erraza ordenagailu baten aurrean arreta mantentzea. Horregatik, tartekatzen ditugu geldirik diren jolasak, mugimenduarekin, idazteko jolasekin... Jolas horien adibideak dira Kitto hitz edo Arkatzak gora, Etxeko ginkana, Erroskilaren jolasa, Hiru marra jolasa, Deskribapen jolasak... Taldearen arabera dinamika ezberdinak proposatzen ditut. Guztiek badute helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea.



Gainera, jolas asko hizkuntza jolasak dira, eta beraz, jolastu nahi badute, euskara erabili behar dute. Ikasleek esan didatenaren arabera oso ondo pasatzen dute eta parte hartzea oso altua da, gogotsu daude.

Jolas asko haien egunerokotasunean lagunekin erabil ditzaketen jolasak dira, eta hori da helburua ere, euskara ez geratzea bakarrik alderdi akademikoan erabiltzen den hizkuntza bezala. Horregatik, hizkuntza ez-formala lantzen dugu ere, lagunekin gaudenean ez baitugu eskolan bezala hitz egiten.

Oso garrantzitsua da ikasleen arteko aisialdiko interakzioak jarraitzea eta garrantzitsua da ere interakzio hori haien aisialdian ematea. Ikasleen garapenerako funtsezkoa da eta modu honetan berma daiteke. Talde honekin esan bezala gutxi daramat eta gainera guztiak ezagunak dira haien artean. Baina, beste leku batzuetako taldeak izan ditut ikasle ezberdinekin eta haien artean talde polita osatu dute, harreman berriak sortu dituzte.



## Unax

Niri Hitz eta Pitz asko gustatzen zait. Euskaraz gehiago hitz egiteko erremedio ona iruditzen zait. Eta gainera dena jolasak dira. Niretzat txarrena bakarrik 40 minutu irauten duela. Gainera Amaia irakaslea eta nire klasekideak oso jatorrak dira. Hitz egiteko eta gozatzeko aukera paregabea da.



## Foto-inkesta

Euskaraldiaren bigarren edizioa amaitu berritan lau lagunekin egon gara ezagutzeko nola bizi izan duten eta zer asmo duten hemendik aurrera.

- 1) Zergatik aukeratu duzu AB/BP konpromisoa?
- 2) Euskaraldian zehar bitxikeriaren bat gertatu zaizu? Espero ez zenuen norbaitekin euskaraz egin duzu/dizu?
- 3) Euskaraldia amaitu da, beste era batean bada ere, konpromisoarekin jarraitzeko asmoa duzu? Nola?



### Nahiara Fernández Fernández

- 1) Ahobizi konpromezua hartu dut betidanik euskaraz "bizi" izan nahizelako. Txikitik ikastolan ikasi eta handitan ikastetxean euskaraz aritzen naiz, beraz, euskaraz bizitzen saiatzen naiz uzten didaten neurrian.
- 2) Bai. Orain kontatuko dudana bitxikeria baino, momentu bortitza izan zen niretzat... euskaraldian zehar egungo egoera dela eta ez naiz bereziki sozialki gehiegi erlazionatu, beraz, laneko egoeraren inguruan arituko naiz. Guraso elkarrizketa nuen Meet-en bitartez eta ikaslearen aita euskalduna zen eta ama erdalduna zen, baina jakin banekien ikaste prozesuan zegoela AEK-n, lehenengo mailan zehazki, eta oso gutxi ulertzen zuen berak. Bilera egiteko momentuan, errespetua adieraziz, zein hizkuntzatan egitea nahiago zuten galdetu nien.... eta uf, nire konpromisoa puskatzeko beldurrez nintzen.
- 3) Konpromisoa beti dago, Euskaraldia izan ala ez. Gertatzen dena da euskaraldiak markatzen dituen egunetan zehar kontzienteagoa naizela eta gehiago saiatzen naizela, besterik ez.



### Karmen Igual Peña

- 1) Ahobizi izatearen konpromisoa aukeratu dut, Lizarran eta inguruan euskaraz bultzatzeko modu bat iruditzen zaidalako.
- 2) Lizarrako dendatan euskaraz aritu naiz, batzuetan ohituragatik zailagoa egiten zait eta Euskaraldiarekin badakigu zer komertziotan dakiten euskaraz.
- 3) Bai, alabari euskaraz hitz egiten diot. Nire anaia eta biok gehienetan euskaraz aritzen gara eta amarekin batzuetan, bera belarriprest da. Lagunen artean pixkat gehio sustatu beharko genuke.



### Karol Irigoyen Azpilicueta

- 1) Nik Belarriprest rola hartu dut. Aurten ongi ulertu dut rolen arteko ezberdintasuna. Nahiz eta gaitasuna dudan, une honetan nire konpromisoa Belarriprest batena da.
- 2) Kirol denda handi batean nengoen eta hango langileak nire txapa ikusi zuenean nirekin euskaraz egin zuen. Ni eroso sentitu nintzen eta euskaraz erantzun nion noski.
- 3) Bai. Hemendik aurrera txapa eramaten jarraituko dut. Oso inportantea da txapa jantzita eramatea, horrela errazago egiten dugulako euskaraz hasieratik; beraz, segituko dut.




### Cesar Etxeberria Saez

- 1) Aurten daukagun egoerarekin gutxiago irteten naizenez, ez nuen esperimintuan parte hartzeko asmorik. Baina azkeneko momentuan pentsatu nuen parte hartzen zutenei laguntzeko modu bat izan zitekeela. Horregatik hartu nuen belarriprest rola.
- 2) Ezagun batekin baina gehiagorekin pasatu zait txapa ikusi eta "nolatan belarriprest?" galdetu didatela. Nire erantzuna: "txaparik gabe gazteleraz egingo zenidalako". Normalean gazteleraz hitz egiten dudan euskaldunekin euskarara pasatzeko aitzakia izan da.
- 3) Txapa eramaten jarraituko dut, baina "ahobizi" izaten saiatuko naiz.



## Gurutzegramak



### Ezker eskubi

- 2- Gurutzegramaren bertsoan
- 3- Olentzerok ahoan
- 5- Gurutzegramaren bertsoan
- 7- Kristau ez zirenek Jesukristori
- 8- Gurutzegramaren bertsoan

### Goitik behera

- 1- Kristau ez zirenak, harrespil egileak
- 4- Kristau ez zirenak, orokorrean
- 6- Gurutzegramaren bertsoan
- 7- Zinema zale porrokatua.

## Euskal glifoa



### Gurutzegramaren bertsoa

Hiru (2- ezker eskubi) datoz kale nagusitik tripak ardoz beteta ezin egon (6- goitik behera) Meltxorrek heltzen dio Gasparri (8- ezker eskubi) muturrez aurrera ez (5- ezker eskubi).

Egilea: **Mikel Kolomo**

Zenbat urte pasa diren ehun ta hamasei urtaro txikiak ginenetik hor urria eta azaro bi urtekin ezagutu dena berria zen klaro elkartzu ta partekatuz joan zitzaigula haurtzaro urteak pasa zirela jolasa eta gehiago gutxika iritsi zela guretzat nerabezaro zure alboan ez naiz ni sentitu inoiz arraro ta txikitan bizitakoa hor geratzen da luzaro.

Naturaltasunez biziz joan ginen gu aurrera adin zail horietara helduz bertatik bertara ikastolako irria institutoko algara eguneko lasaitasun baita gaueko ikara parrandan luze ibili eta kontatzerik bada heldutze prozesu hortan elkarrekin egon gara distantzian bada ere beti hortxe egon zara nagusi egin gara eta haur izatea pasa da.

Eta iritsi zaizkigu orain hogeita zortziak bukatu direla berriz gaztetasun aitzakiak ta sobera gara baina gure bizitzan haziak etapa berri batetan nolabait ere hasiak heldu diren une latzak ahal dela iragaziak bihurtuz irakaspenak beti ere irabaziak batzutan oso garbiak besteetan nahasiak baina zure alboan beti asko dira ikasiak.

# Olentzero egun osoz: goizean eta ilunabarrean

Urte latza izaten ari da, eta nahi baino etxe gehiagotan errotu dira kezka eta samina. Horregatik, Olentzerok eta Mari Domingik ahaleginak eta bi eginen dituzte gu bisitatzeko, haurren gutunak jaso eta alaigarria eman.

Esan bezala, baina, urte berezia da eta, beraz, aurreko urteekin alderatuta aldaketak izanen dira ikazkinen bisitan. Lehenik eta behin, 24 goizean, Lizarrako mendietara hurbilduko dira Olentzero eta Mari Domingi: San Millan/Orlegira zehazki. Bertan txikien zain egongo dira hauek gutunak eraman ditzaten.

Bi ibilbide zirkular izanen dira, bata oso erraza, lau urte baino gutxiagokoentzat, adinekoentzat, eta bestea maila erraza-ertainekoa. Bietan abiapuntua Renolit zenaren aparkalekuan izanen da (informazio-gunea ere izanen da bertan) eta garrantzitsua: alde zaurretik izena eman beharko da taldeka, gehienez 6 lagun. Izena ematean hitzordua jasoko duzue (printzipioz 10:00etatik 13:00etara egongo da irekita ibilbidea) eta oso garrantzitsua hitzordua baino ordu bate lehenago agertzea irteera puntura. Zergatik? Ordua "Olentzeroren basoko sarrera"-ri dagokiolako, ibilbidearen erdialdean, eta ez irteera puntuari.

Familiak bidean ezustekoak topatuko dituzte, musika, dantza... eta Mendizaleen Klubeko kideak egongo dira laguntzeko eta bidea seinaltatzeko. Ibilbidea bi ordu ingurukoa izanen litzateke, bat Olentzerorengana iristeko eta beste bat itzultzeko. Edoein kasutan, adi egon Mendizalearen webguneari, izen ematea eta informazio eguneratua (adibidez eguraldi txarra badago) bertan izanen duzue: <http://www.estellamendizale.com/eu/>



Bestalde, arratsaldean ohikoa zen Olentzeroren kalejira erraldoia egitea: musikariak, dantzariak, eta gure pertsonaia maitagarriak gurdietan karriketan barrena. Aurten aldaketak izanen dira, arratsalde goiz partean izan beharrean 19:30 aldera jaitsiko da menditik eta ibilbide berria eta luzeagoa eginen du hiri osoan zehar. Familiei eskatuko zaie etxeko lehoietatik eta balkoietatik agurtzea Olentzero eta Mari Domingi, ez karrikatik bertatik. Edozein kasutan, azken berriak izateko, adi egon hedabideei eta sare soziaiei.



**kotarro**

52. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.  
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:  
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:  
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007  
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Nafarroako  
Gobernua

Gobierno  
de Navarra



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.